

**ANOETA**

Herri kirol jaialdiko parte hartzaileak eta antolatzaileak. :: ARGAZKIAK NÚÑEZ

## Giro ederrean burutu zen Euskal Festa Benta Aldean

**:: NÚÑEZ**

**ANOETA.** Ohitura den bezala Benta Aldea bodegoiak Euskal Festa egin zuen atzo goizean toka, aizkora eta harri jasotzearekin. Bertan elkartu ziren herritar eta bisitarien arteko toka txapelketak eman zion hasiera. Ondoren, Rekondo, Arria VI, Larraxea eta Txapartegik aizkora erakustaldia eskaini zuten. Binaka zutikako zein etzaneko enborrak moztu behar izan zituzten.

Amaitzeko, Josetxo Urrutia leit-zarrak ingude-altxatze erakustaldia egin zuen eta 145 kiloko bola altxatu zuen. Ikusle ugari gerturatu ziren jaialdira eta giro ederrean ani-



Urruti ingudearekin.

matu eta txalotu zituzten parte hartzaileak.

**Herriko jaietarako bilera**

Hilabete eskas geratzen da Anoeta Korputz jaietarako eta bihar astelehenean, hilaren 15ean, herriko jaiak antolatzeko bilera izango da egitarauaren prestaketa bidean. Bilerak 19:00etan hasiko da udaletxean.

Egitarauan geratzen diren azken ekitaldiak lotuko dira eta kartel lehiaketako irabazlea aukeratu da. Jai batzordeak herriko taldeei eta lagundu nahi duten herritar guztiei gonbidatzen diete bileran parte hartzera.

**ALKIZA**

## Iparraldeko naturaren kudeaketa azaldu zuen Iker Elosegik

**:: NÚÑEZ**

**ALKIZA.** Fagus-Alkiza zentroan Natura 2000 sarearen kudeaketaren ereduak bat ezagutzeko aukera izan zen ostiralean Iker Elosegiren eskutik. Elosegi Euskal Herriko Laborantza Ganbarako kidea da, Iparraldeko Artzamendi-Mondarrain eremua kudeatzen duen elkarte.

Herritar ugari gerturatu ziren hitzaldira, baso eta mendien kudeaketa ereduak ezagutzeko asmoz. Elosegik azaldu zuenez, elkarteak nekazariak eta abeltzainak laguntzen ditu etxaldean jarraipena eginaz zein araudiaren errespetatzea, laguntza juridikoa eskainiz eta la-

guntzak eskatzeko txostenak bezelaz.

Atzo goizean, bestalde, mendi buelta egin zuten herritarrek Alkizako mendi eta basoetan barrena. Ibilaldiaren ondoren, Ostatu jatetxean hamaiketakoarekin berriro zituzten indarrak.

**Frontenis finala eta afaria**

Gaur, haurren arteko frontenis txapelketako finalak jokatu dira frontoian. Partidak arratsaldeko 17:00etan hasiko dira. Bihar, San Isidro egunean, baserritarrek beren eguna ospatuko dute afari batekin. Ostatu jatetxean izango da afaria, iluntzeko 21:00etan.



Iker Elosegiren hitzaldia Alkizan. :: NÚÑEZ

**ALEGIA**

:: GOIKOETXEA

## FINLANDIAKO IKASLEAK IÑAKI ARTOLAREKIN

Aralar Institutuan Finlandiako ikasleen bisita jaso berri dute. Maiatzaren 3an etorri ziren finlandiarrak Alegiara, institutuko ikasleen etxeetan hartu zuten ostatu eta hilaren 7an itzuli ziren etxera. Egun horietan zehar klase praktikoak antolatu zituzten haien institutuan; horien artean, larruzko pilotak egiten aritu ziren Iñaki Artola pilotariarekin eta Otero pilotagilearekin.

**LABUR**

## 75 herritar konprometitu euskaraz aritzeko

**IBARRA**

Ibarrak ekin dio dagoeneko, euskaraz sustatzeko kanpainari. Herritar konprometituak bildu ditu egitasmoak eta euskaraz bi astetan, maiatzaren 12tik 26ra, mintzatzeko konpromisoa hartu dute. Herria apaintzeko saiakera ere egin dute. Esaterako, Euskal Herria kalean 'I barra-barra euskaraz' margotutako murala jarri dute, eta herriko farolak ere apaindu dituzte. Kanpainaren helburua da euskaldunak aktibatzea. **M.A.**



:: IBARRAKO UDALA

## Iñaki Perurenaren 'Harria' antzezlanak gaur

**ERREZIL**

Gaur arratsaldean Iñaki Perurenak 'Harria, maitasun istorioa?' antzezlanak aurkeztuko du. Erniarraitzen antolatutako emanaldia Borondegoin izango da, arratsaldeko 17:30ean. Perurenak harriak giza-kion bizitzan izan duen ibilbidea eta berak izan duen erlazioa kontatuko ditu. **YARZA**

## Bihar, Baserritaren Eguna izango da herrian

**ASTEASU**

Bihar Baserritaren Eguna izango da. Egitaraua: 13:00etan, erakustaldia probalekuan: Joxe Barriolaren, idi pareta eta Itxaso Arrutiren, idi pareta 20 minutuko saioak. 14:00etan, bazkaria Sarasola sagardotegian. Bertsolariak: Jexux Mari Irazu eta Julio Soto. Ondoren: Erromeria Trikitilariarekin. **ARRATIBEL**